

TOLOSA / Estadistika

KARLOS LINAZASORO.

Tolosako udal liburutegietan egin dugun iazko balantzearen berri ematera natorkizue, euskaldunak apurtxo bat asalda gaitezen (inozoa ni). Hasteko esango dut estadistikak azken urteotako zenbakietan mantentzen direla, ez dagoela aldaketa handirik alegia. Helduen liburutegian, urte osoan zehar, 6.800 liburu mailegatu dira gazteleraz; alegia egunean 27,7 liburu. Euskarazkoak, berriz, 822 izan dira mailegatuak; egunean 3,3 liburu. Portzentaia, beraz, honako hauxe da: %86,3 gazteleraz, %10,4 euskaraz, %3 beste hizkuntzak. Haur liburutegian, berriz, hauexek dira datuak: 7.000 liburu mailegatu dira euskaraz, eta 5.600 gazteleraz. Beraz, hausnarketa betiko bera da: haur eta gazteek gehiago irakurtzen dute euskaraz gazteleraz baino, eta nonbait behin 'heldutasunera' iristen direnean, gehientsuenek euskaraz irakurtzeari uzten diote. Gurean, herri euskaldun peto-peto exenplugarrian, ehunetik hamarrek soilik irakurtzen dute euskaraz, eta kopuru horrekin nekez eusten zaio literatura nazional bati. Egoera diglosikoa, alfabetatze falta... badira literaturaz kanpo mila faktore euskal irakurlearen hazkundea oztopatzen dutenak... baina, eta 'literaturari berari' dagozkionak? Zergatik ez ditu irakurle helduak gure (batez ere, nire) liburuak irakurtzen? Zertan egiten dugu huts? Noiz egin behar dugu hausnarketa serio bat gure literaturak daukan arazo larrienari buruz?